



EEP Euskararen Erakunde Publikoko ordezkariak, atzo arratsaldean, Baionan, argibideak ematen. BOB EDME

Frantziako botere publikoek ez dute emendatuko aurtan hizkuntza politikarako partida

Xede jakin bat bultzatzeko balizko eragileren baten ekarpenari tokia nola egin aztertzen ari da EEP

AITOR RENTERIA

Euskararen aldeko hizkuntza politika publikoak ez du baliabide gehiago ukanen aurtan. EEP Euskararen Erakunde Publikoak ho-

rrela jakinarazi zuen atzo Baionan burutu zen aholku batzordearen bilkuran. Frantziak, Akitaniak eta Kontseilu Nagusiak hizkuntza politika burutzeko diru partida iazko heinean atxikiko du eta orotara bi milioi euroko aurrekontua ukanen du EEPk. Partaide bakoitzak aurrekontuaren %30 finantzatzeko du, gainerateko partea herriarteko egiturek eta hautetsien kontseiluak finantzatzeko dutelarik.

Etorkizun hurbilean eragileren batek xede jakin bat bultzatu nahi balu, haren ekarpena onartzeko moldeak aztertzen ari direla azaldu zuen Max Brisson EEPko presidentea. Ez zuen zehaztu zein izan daitekeen eragilea eta nolako ekarpena egin dezakeen.

Iaz 1,45 milioi euroko funtsa osatu zuen EEPk, eragile pribatuak eta herri mugimenduek bultzatu egitasmoak laguntzeko. Aurtan 1,5 milioi eurokoa izan daitekeela

adierazi zuen Brissonnek. «Eusko Jaurilaritzak 450.000 eta 500.000 euro artean esleitu du eragile- en egitasmoak bultzatzeko Ipar Euskal Herrian eta horren arabera emendatuko da aurtengo funtsa».

Euskaltzaindiarekin hitzarmen bat izenpetuko du EEPk aurtan eta hainbat egitasmo burutzeko 140.000 aurrekontua esleitu dio. Eusko Jaurilaritzak alde batetik eta bertze aldetik EEPk laguntzen dute Euskaltzaindia eta egoera argitzeko asmoz hiruko hitzarmena osatu nahi dute 2009an. Beraz azken finean 1.380.000 euroko funtsa baliatuko dute eragileek deialdi publikoaren ondorioz.

Jean Claude Iriart EEPko zuzendariak, hizkuntza politikaren atal eta aurtengo norabide nagusiak ere azaldu zituen atzo. Familia transmisioaren atalean, 2007 eta

2008an lagundu dituzten egitasmoak aipatu eta horiek burutzeko protokoloa zehaztu dutela azaldu zuen Iriartek. EEPren hizkuntza politikaren jomuga nagusienetarikoa gazte belaunaldietan eragitea da, bereziki lehen haurtzaroran. Atal horretan, haurrei eskaintzen zaaien harreraren egoera eta etorkizunean landu daitezkeen ildoak aipatu zituzten. «Murgiltze eredu- an, girstinoan eta elebidunean, eginkizunen ituna finkatu eta labelak esleitzeko prozedura zehazten ari gara» (familien kutxa eta Kontseilu Nagusiarekin elkarlanean). Proiektuak osatu dituzten eragileei, ituna aurkeztu eta hedapena burutzeko prozedurak aztertuko dizkietela azaldu zuen. Zuberoan lehen haurtzaroko eremu elebidun proiektua laguntzeko bitartekoak aztertuko dituzte.

Irakaskuntzan urte anitzeko programazioaren lehen atala obratzeko xedea du EEPk. 2008 eta 2009ko eskola sartzekak prestatzen ari dela dio, kontuan hartuz bai ereduaren garapena, bai orain artean sortutakoaren egonkortzea.

Seaskarekin akordio markoa lortzeko xedeari eutsi nahi dio EEPk. Alta, irakasle postuak esleitzeko protokolorik ez dute oraindik adostu Seaskak eta Frantziako Hezkuntzak. Seaskak beregain hartu behar izan ditu, orain artean, Frantziako hezkuntza sistemak onartu ez dituen beharrak. EEPren bitartekaritzak ez du akordioa lortzea bermatu.

Euskarazko hedabideen promoziorako kanpaina burutuko du EEPk apirilean. Horren ondorioz euskarazko hedabideek bertze diru iturri batzuk ukan ditzakete la azaldu zuen Brissonnek. Horrekin batera EBT1 telebista katearen harrera baldintzak hobetzeko plangintza osatzen ari da EEP.

Ingeleseko eskolak euskarazkoen tokian jartzea salatu dute Iruñean

Iruñeko 17 haur eskoletako lekuen %11 bakarrik dira euskaraz; biharko elkarretaratzea deitu dute

ASIER AZPILIKUETA

Iruñea

Iruñean ireki dituzten azken hiru haur eskolak, Hello izenekoak, gaztelaniaz eta ingelesez ematen dute. Donibane auzoan ireki dute azken haur eskola, ikasturte hone- tan, eta bertako kolektibo batzuek salatu dute Iruñeko Udalak inge- lesa jartzen duela herritarrek eus- kara eskatzen duten tokian.

Donibaneko Auzo Elkartek, AEK-k, EHEk eta ANV-k, eta Haur Eskolak Euskaraz taldeak pren-

tsaurrekoa eman zuten, atzo, Do- nibaneko haur eskola horrekin zer gertatu den salatzeko.

«Jose Mari Huarte eskolan ireki dute Hello San Juan gaztelania- ingelesa haur eskola», azaldu zuten. «Iruñeko Udalak 112 leku eskaini zituen hor. Baina matrikulatzeko epean, 15 haur eskoletako eskae- ra bertzerik ez zuten jaso. Horrega- tik, epea luzatu zuten, eta adin tar- tea ere handitu zuten: hasieran 2005ean jaiotakoak onartzen zituz- ten; gero, 2006ko urtarril-ekainean jaiotakoak ere bai. Azkenean, ba- karrik 30 eskaera jaso zituzten. Hau da, 82 leku hutsik gelditu dira».

Kolektibo horien ustez, Iruñeko Udala «tematzen ari da eskaera gu- txi duen hizkuntz eredu hori ema- ten», eta, bitartean, «euskarazko

lekuen ehuneko sinboliko bat ber- tzerik ez dago». Izan ere, nabar- mendu zuten, Iruñeko 17 haur eskoletatik bi bakarrik ez dira eus- karaz (Izartegi eta Egunsenti, Txantrean); hiru Hello motakoak dira; eta gainontzeko guztiak gaz- telaniazkoak dira. «Iruñean es- kaintzen dituzten lekuen %11 ba- karrik dira euskaraz. Gaztelania- ingelesezko plazen eskaintza, berriz, %24koa da. Gaztelaniazkoa %65koa da».

Gogoratzekoa da, Iruñean, D ereduak Haur eta Lehen Hezkun- tzako matrikulazioen herena har- tzen duela, gutxi gorabehera. Haur eskolen eta hurrengo zikloen artean dagoen desoreka hori sala- tu zuten Donibanekoek, hau da, es- kaintzaren eta eskaeraren artean dagoen desoreka. Donibanen ez



Haur Eskolak Euskaraz plataformako kideak, atzo. JACOBIA MANTEROLA / ARCAZKO PRESS

dago ziklo horietarako euskarazko eskaintzarik.

ELKARRETARATZEA. Hori guztia sala- tzeko, elkarretaratzea eginen dute bihar, 18:00etan, Golem-Baiona zi- nemaren ondoan, Jose M^o Huarten haur eskola euskaraz lelopean. On- doko taldeek eman dute atxi- kimen- dua: Sortzen, Euskal Herriak

Bere Eskola, EHE, AEK, IA, EAE- ANV, ELA, LAB, EILAS, Dindaia fundazioa, eta Iruñeko Udaleko haur eskoletako langile batzordea. Bertzetik, Donibanen euskarazko eskolaren aldeko aldarrikapena aurrera eramane- duen platafor- ma bat sortzen ari direla erran- zu- ten, eta parte hartzeko gonbita egin zuten.